

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: MERKATARITZASEKTOREA BIZIBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen xedea merkataritza jardueraren bat lokal huts batean abian jarri edo martxan dagoen negozioa eskualdatu nahi duen pertsonak bete behar dituen baldintzak eta betekizunak zehaztea da, oinarri hauetan arautzen diren merkataritzako lokal bat erosi/alokatu edo eskualdatzeko dirulaguntzak lortzeko.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

A. LOKALA ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK.

- a) Lokalen kokapena eta garatu nahi duen jarduera.

Negozioak Beasaingo udalerrian kokatuta egon behar du. Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira: txikizkako merkataritza eta zerbitzu jarduerak.

- b) Ekintzaileek, uneoro, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoetan eguneratuta egin behar dute.

B. LOKALA EROSTEKO DIRULAGUNTZAK.

Lokala erosteko dirulaguntzak jasotzeko baldintzak, lokala alokatzeko jarritako baldintzen berdinak dira.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

A. LOKALA ALOKATZEKO DIRULAGUNTZAK

Jarduera garatuko duenak establezimendua alokatuz gero, gehienez eskaera egindako lehen hiru urteetako alokairu- gastuak diruz ordainduko zaizkio, betiere aurrekontu egokia eta nahikoa egonez gero.

- Eskaeraren lehenengo urtean alokairu gastuaren %50, gehienez ere 300€ hilean.
- Bigarren eta hirugarren urtean alokairu gastuaren %40, gehienez ere 200€ hilean. Horretarako, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko abenduaren 15a baino lehen, urte horri dagozkion fakturak aurkeztu beharko ditu

B. LOKALA EROSTEKO DIRULAGUNTZAK.

Dirulaguntza higiezinaren katastro-balioaren %4, gehienez ere, 2.000€.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

-Epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2025-11-30ean amaituko da.

-Modua:

Dirulaguntza eskatzen duten ekintzaileek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, adierazten diren agiri guztiekin batera, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez, edo aurrez aurre iGunean, l. eranskineko ereduaren arabera.